

Fleming Herri Eskolan jangela in situ egiteko eskaera.

Jesus Maria Quesada Hilingerrek, Villabona herrian dagoen Fleming Herri Eskolako zuzendariak, Eskolako Komunitatearen izenean, Villabonako Udalari eta bere Udalbatzari jakinarazi nahi dio:

- Fleming Herri Eskola azken urte hauetan jangela eredu aldatzeko erronka jorratzen ari dela. Duela zazpi urte lehendabiziko proiektua aurkeztu genuen Hezkuntza Sailan. Fleming Herri Eskolatik sukaldea bertan izateak dituen abantailak aspaldidanik goraiatu ditugu eta horretarako sukaldea izatea ezinbestekoa da.
- Fleming Herri Eskolako atezaina (udaleko langilea), Gregorio Etxezarreta, 2022an jubilatu zen. Atezainak eskolan zuen bere etxebizitza funtziorik gabe gelditu da eta hau jantokiko office ondoan kokatuta dago. Espazio hori sukalde bihurtzeko bideragarritasuna aztertuta dago proiektu batean, beraz espazio hori sukaldea eraikitzeko egokia dela badakigu.
- Hau horrela izanik, 2023ko urriaren 23an Fleming Herri Eskolako Ordezkaritza Organo Gorenean (OOGean) egindako bileran (5. puntu) gaia eztabaidatu zen. Proiektu honekin bat egin zuen O.O.G.ak eta bozketa egin ondoren aho batez onartu zen.
- Ondoren, egoeraren berri eman diogu Hezkuntza Sailari, berriro ere Fleming Herri Eskolan sukaldea egitearen proiektuaren eskaera egin zaiolarik eskolako O.O.G.-aren izenean.
- Baina Fleming Herri Eskolako eraikuntza udalarena denez, Hezkuntza Sailak udalaren eskaera ofiziala behar du proiektu honi oniritzia eman eta aurrera jarraitu ahal izateko.
- Jantoki eredu aldatzearen proiektua honakoa da: Arratzaingo eraikuntzan sukaldea sortzea, bertan ikasle-irakasleentzat janaria sukaldatzeko (Arroako, Arratzaingo eta Erniobeakoentzat). Sukaldea eraikitzeko, atezainaren etxebizitza ohia eta oraingo jangelako office-ak hartzen duten espazioa erabiliko genituzke.

Aurreko puntuak kontuan hartuta, Amasa-Villabonako udalbatzari zera eskatu nahi diogu:

1. Amasa -Villabonako Udalbatzak gaurko plenoan bat egitea Fleming Herri Eskolako O.O.G.ak hartutako erabakiarekin, hau da, Arratzaingo eraikuntzan sukaldea egitea eskatzeko erabakiarekin.
2. Amasa-Villabonako Udalbatzak Hezkuntza Sailari Fleming Herri Eskolako Arratzaingo eraikuntzan sukaldea (ahalik eta arinen) egiteko eskaera ofiziala egitea, horretarako gaur egungo OFFICE-a eta atezainaren etxebizitza ohia sukalde bihurtuz.
3. Amasa-Villabonako Udalbatzak Hezkuntza Sailari Arratzainen sukaldatuko den janaria Arroako eraikuntzara garraiatzeko baliabideak jartzeko eskaera egitea.
4. Amasa-Villabonako Udalbatzak sukaldea sortzeko prozesuan beharrezkoak izango diren baliabide pertsonal, tekniko zein ekonomikoak jartzea eta Hezkuntza Sailak eskatuko dituen udalaren baimenak onartu eta ematea.

Eskaera hau justifikatzeko eta aurreko puntuak onartu ahal izateko, dokumentazio hau ere aurkezten da:

1. 2023ko urriaren 23an egindako OOGaren aktaren 5. Puntuaren kopia.
2. 2023ko abenduaren 24an Gure Platera gure aukera egindako prentsa aurrekoen kopia.
3. Prentsa honen anexoak, non Hezkuntza Sailari sukaldea in situ egitea eskatu duten eskolaren zerrenda. Bertan Fleming Herri Eskola agertzen da
4. Eskolan sukaldea in situ izateak duen arrazoi zerrenda.

Hau guztia kontuan hartuta, urtarrilak 31an egingo den Udalbatzaren plenoaren deialdian hurrengo eskaera sartzea eskatu nahi dugu, LEHENDABIZIKO PUNTUAN posiblea baldin bada.

Villabona, 2024ko urtarrilaren 22a